



ikastolak



TANTIRUMAIRU IKASTOLA LESAKA



Otsailean landatuko da Lesakako Oinez Basoa

2015EKO ABENDUAN SUTE LARRI BAT JASAN ZUEN FRAIN MENDIA LANDABERRITZEA DA TANTIRUMAIRU IKASTOLAKOEN HELBURUA

Testua eta argazkia Tantirumairu Ikastola

Otsailaren erdialdera Frain mendian Oinez Basoaren irekiera ekitaldia ospatuko da. Gure ikastolako partaide guztiak gonbidatuta gaude, baita Nafarroako bertze ikastolak ere. Agintariak ere etorriko dira eta egun horretan hasiera emanen zaio baso berriaren zuhaitz landaketari.

2015eko abenduaren 19an sute handi batek Lesaka eta Igantziko eremuak erre zituen, sute hori urte hartan Nafarroan erregistraturiko handiena izan zen; Frain izeneko mendian 190 hektarea kiskalita gelditu ziren.

Zuhaitz bat energia handiko kable baten gainera erori eta puskatu zenean hasi zen sua. Kablea lurre-ra erori eta segidan sutea zabaldu zen lur eremu zabal batean. 190 hektarea erre ziren, horietako 120 hektarea zuhaitzez beteriko baso aberatsak ziren; pinuak, gaztainondoak, bertako haritzak, haritz amerikarrak, lizarrak eta bestelako espezieak erre ziren sutean. Bertako zuhaitz gehienak hilak edo kalteak gelditu ziren, batez ere haritzak, inguruko ekosistema arrisku larrian jarritz.

Hondamendi hau ikusirik, Tantirumairu Ikastolak Nafarroa Oinez 2017 antolatzearekin batera, Oinez Basoa proiektua bere esku hartu zuenean, egoki iruditu zitzaion Frain eta Ziobiko eremu hondatu horiek zuhaitzekin berriz landatzea. Proiektua Lesakako Udalari aurkeztu zion eta honek bere gain hartu zuen. Abuztuaren hitzarmen bat sinatu zuten Lesakako Udalak, Tantirumairu ikastolak eta NIEK proiektu hau antzineria eramateko Nafar Gobernuaren diru laguntzarekin.

Proiektuari esker, 9 hektareako eremua berriz landatuko da, Ziobiko parajeen 7,42 hektarea eta Fraingo kaskoan 1,63 hektarea. 11.000

zuhaitz landatuko dira, orain arteko Oinez Basorik handienan Ziobiko lurretan, bertako haritza, gereziendoa, lizarra, *Pinus taeda* eta *Atlas zedroa* landatuko da. Frainen aldiz, urkia, bertako haritza eta gereziendoa landatuko dira. Bi landaketa eremu hauek itxiak egonen dira zuhaitzak babestuak egoteko.

Erretako lurren berreskurapenaz gain, Tantirumairu Ikastolak bere ekarpena egingen dio proiektuari; Fraingo eremu berdinean, ibiltarientzat atseden eta informazio gune bat sortuko du. Oinez Basoaz eta bertako proiektuaren gaineko informazioa emanen duen interpretazio kartela sortu eta inguruan

kokatzeaz arduratuko da, gainera basoa nola doan hazten begiratu eta jarraipena egingen dio.

ZER DA OINEZ BASOA? Tantirumairu Ikastolarena Nafarroa Oinezek sortuko duen zazpigarren basoa izanen da, 2010ean Oinez Basoa abian paratu zenetik Arbizun. Oinez ospakizunak ingurumenen kalte ekologikoak eragiten zituela ikusita sortu zen egitasmoa abiatzeko ideia. Izan ere, baliabide naturalak kontsumitu, hondakinak sortu eta berotegi efektuko gasak isurtzen baititu bestak.

Lehenengo Oinez Basoa Iruñeko Jaso Ikastolak antolatu zuen. Euren sortu zuten ideia, ospakizunak sortutako kalte ekologikoak orekatzeko. Baso bat sortzea da ideia nagusia; besta ospatzen zen tokian ingurumenarentzako testigantza onuragarri bat uztea erabaki zen: natur gune autoktonoa birsortzea, euskararen eskutik sortuko zen basoa. ●



Gure kazetariak (Oihan, Josu, Janire, Eklife eta Lexuri), Frain mendia non dagoen erakusten digute.

BASOAK, URTEZ URTE

● **2009-2010 urteak. Lehen basoa.** Etxarri Aranazko Andra Mari Ikastolak egin zuen, Atarra-biako Paz de Zigandarekin batera. 5.200 landare landatzeaz gain, basoan bi putzu egin zituzten, anfibioen habitata hobetzeko, bereziki babestutako baso-igel jauzkariarentzat, baita hegazti migratzaileei atseden leku bat uzteko. Egun, hegaztiak ikusteko behatoki batean lan egiten ari dira.

● **2011-2012 urteak. Bigarren basoa.** Tafallako Garces de los Fayos Ikastolak egin zuen baso mediterranean bat, Iruñeko San Fermin Ikastolarekin batera. 6.700 zuhaitz landatu zituzten. Ikerketa bat martxan dago, atmosferako karbono dioxidoari (CO₂) eta bere bahiketari buruz. Karbonoaren zikloari buruzko Web Quest bat sortu dute, hau da, tresna informatiko didaktiko bat fase esperimenteralean dagoena.

● **2013, Tuterako Argia Ikastola, hirugarren basoa.** Erreka bazterreko baso bat sortu zuen Tuterako Argia Ikastolak, Udalaren laguntzaz. Soto de los Tetones parajeen (25 urtez arroz laborantza intentsiborako erabilia) 3.000 zuhaitz landatu zituzten.

● **2014, Zangozako Ikastola, laugarren basoa.** Zangozako Ikastola proiektu berri batean murgildu zen, udalaren eta mankomunitatearen laguntzarekin: herriko zabortege zaharra 3.000 landareekin oihanberritu zuten. Hegazti espezie aunitzei babes eman zieten, eta habi-kaxak ere jarri zituzten.

● **2015, Baztan Ikastolaren basoa.** Babestutako Pago Lizarra eta Portugaleko Erramuaren kontserbazioa izan zuen helburua. Baztango Ikastolak Gaienekola parajeen pinua kendu eta arriskuan dauden bi zuhaitz mota landatu zituen bertako ekosistema aberasteko asmoz. Baztandar bakoitzeko zuhaitz bat landatu zuen, 8.000 zuhaitz denetara.


● **2016, Erentzun eta Ibaialde ikastolen basoa.** Bi baso ezberdin sortu ziren. Andosillan, bertako ekosistema desberdinen kontserbazioan laguntzeko basoberritzea egin zen eta bertetik, Sartagudan, herriko naturgune desberdinak lotzen dituen interes bereziko sakan bat zuhaitzez hornitu zen.

LEHIAKETARAKO GALDERAK

1. Zergatik erraten da kalte ekologikoak sortzen dituela Nafarroa Oinez eguneko bestak?
2. Zein baso mota sortu zuen Tuterako Argia Ikastolak?
3. Zer gertatu zen Frain mendian duela bi urte? Bidali zuen erantzunak nie03@ikastola.eus helbidera, zure izen-abizenak, telefono zenbakia, helbidea eta ikastolaren izenarekin batera.

IRABAZLEAK

OINEZ BALEA (1): Idoia Jorajuria (Labiaga Ikastola).
OINEZ BALEA (2): Ismael Martin (Ibaialde Ikastola).
OSASUNA (6 sarrera): Imanol Uriarte (Jaso Ikastola) Iñaki Reta (Jaso Ikastola) eta Felix Oraien (Amairu Ikastola).



Datu Pertsonalak Babesteari buruzko abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoan xedatzen dena bezela, zure datu pertsonalak ZOZKETA fitxategian sartuta daudela eta horren helburua erakundeak antolatutako zozketak kudeatzea dela jakinarazten dizugu. Fitxategia Datuak Babesteko Agentzian aitor-tu dugu eta datuen segurtasuna bermatzeko neurriak ezarri ditugu.